



COMPTE RENDU DU CONSEIL MUNICIPAL du 22 septembre 2020

2020ko irailaren 22ko HERRI KONTSEILU BILKURAREN TXOSTENA

Le conseil municipal de Saint Martin d'Arberoue s'est réuni le mardi 22 septembre 2020 à 19h30.

Donamartiriko Herriko Kontseilua irailaren 22an asteartean 7:30tan bildu da.

Présents / Hor zirenak : LARRABURU Antton, BLANC Jérémy, CHABAGNO Inès, ELISSALDE Nicolas, ETCHEGORRY Virginie, HARISMENDY Mañu, LADEUIX Jean-Pierre, POCHELU Didier, POCHELU Bernadette, THICOIPE Xabi

Excusée / Barkatua : ERGUY Joëlle

Secrétaire de séance / Bilkuraren idazkaria : CHABAGNO Inès

Début de séance / Bilkuraren hastapena : 19:30

Validation du CR du 4/07/2020

Le Compte rendu du Conseil municipal du 4/09/2020 a été approuvé à l'unanimité.

Délibération : Demande d'aide financière au titre de la DETR pour le projet de rénovation intérieure des salles de classe de l'école publique

Monsieur le Maire informe l'Assemblée de son projet de rénovation intérieure des salles de classes de l'école publique de la commune.

Après consultations et réunion de la Commission d'Appel d'Offres, les montants des travaux de rénovation et honoraires sont estimés à 16812,28 €HT. Le plan de financement proposé est le suivant :

Financement sollicité :

DETR (35%) : 5 884,30 € HT

Autofinancement (65%) : 10 927,98 € HT

Total : 16 812,28 € HT

La délibération est approuvée à l'unanimité.

Délibération : Demande d'aide financière au titre de la Dotation de Soutien à l'Investissement Local pour le projet de rénovation intérieure des salles de classe de l'école publique

Financement sollicité :

DSIL (40%) : 6 724,91 € HT

Autofinancement (60%) : 10 087,37 € HT

Total : 16 812,28 € HT

La délibération est approuvée à l'unanimité.

Demande de subvention envisagée

La demande de subvention auprès du pôle territorial sera effectuée plus tard pour l'aménagement des aires extérieures au niveau du fronton car ce projet concernera aussi les habitants des communes environnantes.

2020/07/03ko txostenaren ontzat ematea

2020/09/04ko Herri Kontseiluaren bilkuraren txostena aho batez onartu da.

Deliberazioa: eskola publikoko ikasgela barneko arraberritze proiektuarentzat DETR izeneko diru laguntza galdegitea

Auzapezak herriko eskola publikoko ikasgela barneko arraberritze proiektuaren berri eman du kontseiluari.

Eskaintza Deialdi Batzordearen kontsultak eta bilkura egineta, berritze lanen eta tasen zenbatekoa 16.812,28 €ZGtan da. Horra proposatutako finantzamendu plana :

Galdegindako diru laguntza :

DETR (% 35) : 5.884,30 €ZG

Autofinantzamendu (% 65) : 10.927,98 €ZG

Guztira : 16.812,28 €ZG

Deliberoa aho batez onartzen da.

Deliberazioa: eskola publikoko ikasgela barneko arraberritze proiektuarentzat Tokiko Inbertsiorako Sustengurako Diru laguntza galdegitea

Galdegindako diru laguntza :

DSIL (% 40) : 6.724,91 €ZG

Autofinantzaketa (% 60) : 10.087,37 €ZG

Guztira : 16.812,28 €ZG

Deliberoa aho batez onartzen da.

Pentsatutako beste diru laguntza

Hazparneko lurraldearen diru laguntzaren galdea berantago eginen da frontoi inguruko gunearen antolaketarentzat, proiektu hori inguruko herrietako biztanleentzat ere pentsatua baita.



Délibération : Autorisation de passage sur les chemins ruraux, voies et parcelles communales d'itinéraires du Plan Local de Randonnées Pays Basque et actualisation du Plan Départemental des Itinéraires de Promenade et de Randonnées (PDIPR)

Monsieur le Maire expose au Conseil Municipal que, conformément à la compétence « Aménagement, gestion et animation de chemins de randonnées identifiés dans le Schéma Communautaire Stratégique de randonnée », la Communauté d'Agglomération Pays Basque a procédé à un audit de l'ensemble des itinéraires du Plan Local de Randonnées (PLR) des anciennes Communautés de Communes ou Communautés d'Agglomération pour aboutir à la création du Plan Local de randonnées Pays Basque – version 1, composé de 95 itinéraires.

La Communauté d'Agglomération Pays basque procède actuellement au renouvellement des conventions de passages avec les propriétaires des parcelles privées traversées par ces 95 itinéraires.

Par ailleurs, la loi du 22 juillet 1983 a donné compétence au Département pour mettre en œuvre son Plan Départemental des Itinéraires de Promenade et de Randonnées (PDIPR). Cet outil de planification représente une protection juridique pour les itinéraires empruntant des chemins ruraux, par imposition du maintien ou du rétablissement de leur continuité. La création du PLR Pays Basque est ainsi l'occasion de mettre à jour ou procéder à l'inscription des chemins ruraux au PDIPR.

Le territoire de la commune est traversé par les itinéraires en empruntant les voies ou parcelles communales, chemins ruraux suivants :

Itinéraire : BELEKARRE

Départ : Kosteletea – SAINT MARTIN D'ARBEROUE

Chemins Ruraux : Chemin rural d'Oxarango, Chemin rural de Gainea

Voies communales : /

Parcelles N° : 842 et 214 (Section C)

Pratiques (Pédestre/VTT..) : Pédestre

Monsieur le Maire propose au Conseil Municipal d'étudier l'ensemble des documents fournis (relevé cadastral, tracé des itinéraires sur fond cartographique, etc.), et d'autoriser le passage des sentiers du PLR Pays Basque sur les chemins ruraux, voies communales et parcelles communales citées ci-dessus, ainsi que l'inscription des chemins ruraux cités ci-dessus au Plan Départemental des Itinéraires de Promenade et de Randonnées (PDIPR).

Deliberazioa: Euskal Herriko Tokiko Ibilaldien Planeko herri bideetan eta herri lursailetan pasatzeko baimena eta Oinez eta Ibilaldi Bideen Departamenduko Plana (PDIPR) eguneratzea

Auzapezak kontseiluari aurkeztu dio "Komunitateko Oinez Plan Estrategikoan identifikatutako mendi ibilbideen plangintza, kudeaketa eta animazioa" eskumena ukanez, Euskal Hirigune Elkargoak ikuskapen guztiak egin ditu lehengo Herri Elkargoen edo Aglomerazioko Elkargoen Tokiko Ibilaldien Planeko (PLR) ibilbideetaz Euskal Herriko Tokiko Ibilaldien Plana sortzeko, bere 1. bertsioa, 95 ibilbidez osatua.

Euskal Hirigune Elkargoa 95 ibilbide horiek zeharkatzen dituzten lursail pribatuen jabeekin pasabide hitzarmenak berritzen ari da.

Gainera, 1983ko uztailaren 22ko legeak Departamenduari ahalmena eman zion Oinez eta Ibilaldi Bideen Departamenduko Plana (PDIPR) plantan ezartzeko. Plangintza tresna horrek herri bideak erabiltzen dituzten ibilbideen legezko babesa azaltzen du, heien segida mantenduz edo berreskuratuz. Euskal Herriko Tokiko Ibilaldien Plana sortzea herri bideak PDIPRan sartzeko eta eguneratzeko aukera da.

Herri bideak edo herri lursailak hartzen dituzten ibilbideek Donamartiri zeharkatzen duten ibilbideak hauek dira :

Ibilbidea : BELEKARRE

Irteera : Kosteletea - DONAMARTIRI

Herri bideak : Oxarangoko Bidea, Gaineako Bidea

Udal errepideak : /

Lursailak : 842 eta 214 (C atala)

Praktikak (Oinez / mendiko bizikleta...) : Oinez

Auzapezak proposatzen dio Kontseiluari emandako dokumentu guztiak aztertzea (kastroko plana, ibilbideen hatzaren plana, etab.), eta Euskal Herriko Tokiko Ibilaldien Planaren ibilbideak goian aipatutako herri bideetan eta herri lursailetan pasatzeko baimena ematea, baita Oinez eta Ibilaldi Bideen Departamenduko Planan (PDIPR) aipatutako herri bideak eta herri lursailak sartzeko ere.



Après avoir délibéré, le Conseil Municipal :

- Valide le passage des itinéraires du PLR sur les parcelles, voies communales ou chemins ruraux cités ci-dessus ;
- Emet un avis favorable à l'inscription des chemins ruraux empruntés au PDIPR ;
- Demande au Département l'inscription au PDIPR des chemins ruraux mentionnés dans le tableau ci-dessus ;
- Décide de s'engager, en ce qui concerne les chemins ruraux, conformément aux dispositions de la loi n°83-663 du 22 juillet 1983 et de la circulaire d'application du 30 août 1988 :
 - A ne pas aliéner l'emprise des chemins ruraux inscrits au PDIPR,
 - A empêcher l'interruption du cheminement, notamment par des clôtures,
 - En cas de nécessité d'aliénation, à proposer à la Communauté d'Agglomération Pays Basque, gestionnaire du PLR, un itinéraire de substitution qui doit être approprié à la randonnée et ne pas allonger le parcours de manière excessive ou diminuer sensiblement la qualité des paysages traversés,
 - A proposer à la Communauté d'Agglomération Pays Basque la création d'itinéraires de substitution en cas de modifications consécutives à toute opération foncière sachant que ces itinéraires de substitution doivent présenter un intérêt au moins égal du point de vue de la promenade et de la randonnée,
 - A intégrer la préservation des chemins ruraux inscrits au PDIPR dans le cadre de l'élaboration ou de la révision de tous documents d'urbanisme inhérents à la commune,
 - A maintenir la libre circulation pédestre, équestre ou cyclotouriste (selon les pratiques établies par itinéraire) sur les chemins,
 - A prendre les dispositions nécessaires, dans le cadre du pouvoir de police du Maire, afin de limiter, voire interdire quand cela est possible, le passage des engins motorisés sur cet itinéraire sauf pour les ayants droits (propriétaires riverains ne disposant pas d'autres voies d'accès, service de secours, équipe d'aménagement et d'entretien, ...),

Deliberatu ondoren, Herri Kontseiluak :

- Euskal Herriko Tokiko Ibilaldien Planan ibilbideen pasaia balioztatzen du goian aipatutako lursailetan eta herri bideetan ;
- PDIPRan aipatutako herri bideen izen emateari aldeko iritzia emaiten du ;
- Departamenduari goian aipatzen diren herri bideak PDIPRn izena emateko galdegiten dio ;
- Erabakitzen du herri bideei dagokienez, 1983ko uztailaren 22ko 83-663. legean eta 1988ko abuztuaren 30ean garatzeko zirkularrean azaldutakoaren arabera:
 - PDIPRn inskribatutako herri bideak ez uztea,
 - Bidea moztu ez dadin, batez ere hesien bidez,
 - Herri bide bat utzi behar bada, Euskal Hirigune Elkargoari, PLRko kudeatzaile gisa, proposatzea ibilbide alternatiboa, ibilbidea gehiegi luzatzen ez duen edo zeharkatzen dituen paisaien kalitatea ttipitzen ez dituen ibilbide berri baten proposatzea,
 - Lurreko edozein eragiketaren ondoren aldaketarik egonez gero, Euskal Hirigune Elkargoari ibilbide alternatiboak sortzea proposatzea, jakinda ibilbide alternatibo horiek gutxienez interes berdina izan behar dutela oinez ibiltzeko ikuspegitik,
 - PDIPRn erregistratutako herri bideen kontserbazioa integratzea herriak dituen hirigintza-dokumentu guztiak garatu edo berrikustearen barne,
 - Oinezkoen, zaldien edo zikloturisten zirkulazioa mantentzea (ibilbidearen arabera ezarritako praktiken arabera),
 - Auzapezaren polizia poderearen barne neurriak hartzea, bide horietatik ibilgailu motordunak ibiltzea mugatzeko, edo debekatzeko ere posible bada, salbu aizu dutenentzat (beste sarbiderik ez duten tokiko jabeak, larrialdi zerbitzua, plangintza eta mantentze taldea, etab.),



- A autoriser la Communauté d'Agglomération à procéder à l'aménagement (balisage et signalétique), la mise en valeur, l'entretien et l'animation des sentiers inscrits au PDIPR et au Plan Local de Randonnées Pays Basque – version 1.

La délibération est approuvée à l'unanimité.

Autres chemins de randonnées

Une étude sera menée avec les plans cadastraux des chemins non retenus pour envisager d'autres propositions au PLR – version 2.

Sujets divers

Ateliers d'initiation à l'informatique

Ils auront lieu les 2, 9 et 16 octobre. Un conseiller municipal accueillera les six personnes inscrites. La formation se fera exceptionnellement dans la grande salle de la mairie afin de respecter les normes sanitaires de distanciation sociale.

Réunion des représentants des associations

La commission culture a rencontré les représentants de chaque association du village (11 au total) lors d'une réunion conviviale. Chaque association aura dorénavant un interlocuteur référent. Il a été décidé de reconduire annuellement cette réunion.

Il a été demandé aux associations de remettre le compte-rendu de leurs activités à la mairie avant le 30 novembre pour qu'il puisse paraître dans le prochain bulletin municipal. Il leur a aussi été demandé de réfléchir sur leurs idées et propositions concernant l'aménagement des aires extérieures au niveau du fronton. Les membres de la commission ont enfin indiqué qu'ils répondraient avec plaisir aux invitations des associations pour se rendre à leurs assemblées générales

Boîte à idées

Les habitants qui le souhaitent pourront proposer des idées pour l'aménagement des aires extérieures au niveau du fronton. Ces idées seront à remettre à la mairie entre novembre et décembre, soit par courrier, soit par mail.

- Euskal Hirigune Elkargoari baimena ematea PDIPRen eta Euskal Herriko Tokiko Ibilaldien Planaren 1. bertsioan erregistratutako ibilbideen garapena (markatzea eta seinatzea), hobekuntza, mantentze lanak eta animazioarekin jarraitzeko.

Delibereroa aho batez onartzen da.

Beste ibilbideak

Atxikiak ez diren ibilbideen kadastro planekin, herriko etxeak lan bat eginen du herrian pasatzen diren beste ibilbideekin TIP 2. Bertsioan proposamenak egiteko.

Beste gaiak

Informatika formakuntza

Urriaren 2, 9 eta 16an iraganen da. Kontseilari batek izena eman duten 6 pertsoner harrera eginen die. Osasun neurriak eta distantziarioa errespetatzeko formakuntza herriko etxeko gela haundian eginen da.

Elkarteen ordezkarien bilkura

Kultura batzordea herriko elkarten ordezkariekin (11 guztira) bildu zen bilkura batean. Elkarte bakoitzak erreferente kontaktu bat ukanen du. Bikura hori urtero berritzea erabaki zen.

Elkarteei azaroaren 30a baino lehen beren jardueren txostena herriko etxeari igortzea galdegin zitzaien, hurrengo herri aldizkarian agertzeko. Bestalde, frontoi mailan kanpoko eremuen garapenari buruzko ideia eta proposamenen inguruan pentsatzeko galdegin zitzaien. Batzordeko kontseiluek azkenean adierazi zuten pozik erantzungo zutela elkarteek beren biltzar nagusietara joateko gonbidapeneri.

Idei kutxa

Nahi duten herritarrek frontoian kanpoko eremuak garatzeko ideiak proposatzen ahalko dituzte. Idei horiek herriko etxeari igorri beharko dira, azarotik abendura artean, gutunez edo mailez.



Utilisation de la salle Bil Etxea et du trinquet

Arberoue Kirolak a demandé l'utilisation de la salle municipale Bil Etxea pour leurs entraînements le vendredi soir le temps des travaux de Sanoki à Saint Esteben (septembre à mi-décembre approximativement). Ils ont également demandé à disposer d'un local pour manger. Sous réserve d'un nettoyage parfait, il leur a été répondu favorablement. Les demandes des écoles pour l'utilisation de la salle sont toutefois prioritaires.

D'une manière générale, l'utilisation de la salle par les associations sera soumise à l'approbation d'un protocole signé. Une réflexion est engagée pour la mise en place d'un état des lieux (entrée et sortie) au-delà d'un certain nombre d'utilisateurs (nombre à fixer) et à chaque fois que les cuisines sont utilisées.

Les clés de la salle sont à la mairie et à la ferme Agerria.

Les clés du trinquet sont à la mairie, à l'auberge Goxoki et à la ferme Agerria.

Euskaraldia

Du 20 novembre au 4 décembre prochain, l'euskara est mis en avant dans tous les lieux et occasions possibles pour encourager sa pratique. Un système de badges sera mis en place pour identifier les personnes qui parlent l'euskara (belarriprest ou ahobizi).

Une identification des lieux publics qui permettent l'usage de la langue basque (Arigune) sera aussi établie. Nous pouvons noter qu'à Saint Martin d'Arberoue cinq lieux sont repérables : Garage Lasaga, Boulangerie Barnetche, Mutturfin, la ferme Agerria et la mairie. Sous réserve de l'accord de la future secrétaire, la mairie est favorable à cette inscription.

Une réunion publique a eu lieu pour les trois communes de Saint Martin d'Arberoue, Saint Esteben et Isturitz et plusieurs idées ont émergé pour une programmation riche de la quinzaine.

Travaux divers

Suite à un accident de la factrice, une buse a été ajoutée sur Haizkiriko bidea.

Des élagages seront prévus en fin d'année.

Ecole

Les jeux extérieurs ont été contrôlés par l'APAVE avec l'émission de 2 rapports. Même si l'avis est favorable, des petites réparations sont à prévoir. Un contrôle régulier des installations sera mis en place.

Bil Etxea gela eta trinketa erabiltzea

Arberoue Kirolak elkarteak Bil Etxea gela erabiltzea galdegin du ostiral gaueko entrenamenduetarako Donoztiriko Sanoki gela obretan den denboran (irailetik abenduaren erditxura gutxi gorabehera). Jateko lekua ere galdegin dute. Garbiketa ezin hobea eginez gero, begi onez erantzun diegu. Hala ere, eskolak gela erabiltzeko eskaerek dute lehentasuna.

Orokorrean, elkarteek gela erabiltzeko izenpetutako protokolo bat onartuko dute. Erabiltzaile kopuru baten gora (finkatzeko nunbrea) eta sukaldeak erabiltzen diren bakoitzean, inbentario bat ezartzea (sartzean eta joaitean) kontuan hartzen ari gara.

Gelako giltzak herriko etxean eta Agerria etxaldean dira.

Trinketearen giltzak herriko etxean, Goxoki ostatuan eta Agerria etxaldean dira.

Euskaraldia

Heldu den azaroaren 20tik abenduaren 4a arte, euskara bultzatzeko hainbat toki eta ekitaldi antolatuko dira hamabostaldi hortan. Txapa sistema proposatuko da euskaraz dakiten pertsonak (belarriprest edo ahobizi) identifikatzeko.

Euskararen erabilera ahalbidetzen duten leku publikoen identifikatzeko materiala ere ezarriko da (Arigune). Donamartirin bost leku identifikatzea direla pentsatzen da : Lasaga garaja, Barnetche okindegia, Mutturfin, Agerria etxaldea eta Herriko Etxea. Idazkari berriaren adosa baieztatuz geroz, herriko etxea izen emate horrentako ados da.

Bilkura publikoa egin zen Donamartiri, Donoztiri eta Izturitze herrien artean eta hamabostaldi programa aberats baterako hainbat ideia sortu ziren.

Obrak

Postariaren istripu baten ondoren, hodi bat gehitua izan da Haizkiriko bidean.

Urte bukaeran adar mozteak antolatuko da.

Eskola

Kanpoko jokoak APAVE-k egiaztatu ditu 2 txosten emanaz. Iritzia aldekoa bada ere, konponketa txikiak egitekoak dira. Instalazioen kontrol erregularra jarriko da.



Plan Local d'Urbanisme Intercommunal

Les services de la préfecture ont fait un recours gracieux (« à l'amiable ») sur le PLUi approuvé par la CAPB (malgré l'avis négatif de la préfecture). Une modification du PLUi, et non une révision, est envisagée.

Une réunion du pôle aura lieu jeudi 24 septembre pour répondre au recours et pour nommer les représentants communautaires aux organismes externes (Comité de Programmation Leader Montagne Basque 2014-2020, Aldatu, Association Pays Basque au Cœur, Ecole de musique Soinubila, Commission Locale de l'Eau, Association Laguntza Etxerat et Mission Locale Avenir Jeunes).

Cittaslow

A la réunion publique du lundi 21 septembre, Laura Laboulais a présenté son stage et son diagnostic quant aux 72 critères concernant une labellisation possible de la commune. Selon ce diagnostic, il apparaît que la commune pourrait prétendre sans trop de difficulté à cette labellisation. Il est rappelé que ce label valable 5 ans doit être porté par la commune pour un coût de 1500€ la première année et 900€ les années suivantes. Chaque conseiller municipal est appelé à prendre connaissance de ce diagnostic avant de statuer sur le positionnement de la commune lors d'un prochain conseil municipal.

M. le Maire lève la séance du conseil municipal à 22h30.

Prochaine conseil à fixer

Herri arteko Tokiko Hirigintza Plana

Prefeturako zerbitzuek EHEk onartutako PLUiaren (prefeturaren iritzi negatiboa izan arren) kontra errekurso grazios (onez onean) bat pausatu du. PLUi aldatzea aurreikusten da, eta ez berrikustea. Hazparneko Poloaren bilkura irailaren 24an, egingo da errekurtsuari erantzuteko eta kanpoko erakundeetako ordezkariak izendatzeko (2014-2020 Leader Euskal Mendia Programazio Komimtea, Aldatu, Pays Basque au Cœur Elkartea, Soinubila Musika Eskola, Tokiko Ura Batzordea, Laguntza Etxerat Elkartea eta Tokiko Gazteen Geroa Misioa).

Cittaslow

Irailaren 21eko bilkura publikoan, Laura Laboulais-k bere praktikak eta herriaren label baten lortzeko 72 irizpideen diagnostikoa aurkeztu ditu. Diagnostiko horren arabera, badirudi Donamartiri herriak zailtasun handirik gabe lor dezakeela labelizatze hori. Gogoarazi da 5 urtez balio duen label hau herriko etxeak eraman behar duela 1500 € lehen urtean eta 900 € hurrengo urteetan kostuarekin. Herriko kontseilari bakoitzari diagnostiko hori irakurtzea galdegina zaio, hurrengo kontseilu batean herriaren jarrera erabakitzeko.

Jaun Auzapezak herri kontseilua bururatzen du 22:30tan.

Ondoko kontseilua finkatzekoa

